

NAFARROAKO TOPONIMIA ERABILTZEKO OINARRIZKO JARRAIBIDE TEKNIKOAK



Euskararen Nafar Kontseiluak *Nafarroako toponimia erabiltzeko oinarrizko jarraibide teknikoak* dokumentua onartu du Iruñean 2019ko maiatzaren 23an egindako bilkuran.

Izenburua: Nafarroako toponimia erabiltzeko oinarrizko jarraibide teknikoak
Argitaratzen du: Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra
EUSKARABIDEA-INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA

Argitalpenaren arduradunak: Mikel Belasko Ortega
Andres Iñigo Ariztegi
Paula Kasares Corrales
Aingeru Mikeo Azpirotz

© 2019. Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera

Lege Gordailua: NA 1580-2019
Fotokonposizioa: Pretexto
Inprimatzailea: GraphyCems

Aurkibidea

Aurkezpena	5
01 Sarrera	7
02 Toponimiaren oinarrizko terminoak	10
2.1. Toponimo edo izen geografikoa	11
2.2. Termino espezifikoa	11
2.3. Termino generikoa	11
a) Hautazko generikoa	
b) Toponimo erreferentzialen generikoak	
c) Generiko lexikalizatua	
2.4. Termino deskribatzailea	13
2.5. Toponimia nagusia eta toponimia txikia	13
a) Toponimia nagusia	
b) Toponimia txikia	
2.6. Toponimo ofiziala eta haren erabilera	14
2.7. Toponimo normalizatua eta haren erabilera	15
2.8. Toponimo alonimoa	15
03 Toponimia Nafarroako Foru Komunitatean	16
3.1. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa	17
3.2. 6/1990 Foru legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzkoa	17
3.3. Nafarroako toponimia txikia ofizialtzeko foru dekretuak	19
3.4. Nafarroako Gobernuaren foru dekretuak eta erabakiak biztanleguneen izendapen elebidunak zehazteko	19
3.5. 5/2018 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, irizpideak ezartzen dituen Nafarroako biztanleguneen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko	19

3.6. Nazioartearen, Europaren eta Espainiako Estatuaren mailako ebazpen eta arauak	19
a) Nazioarte maila	
b) Europa maila	
c) Espainiako Estatuaren maila	
04 Toponimiaren tratamendua eta haren adierazpen grafikoa	20
4.1. Toponimiaren tratamendua hizkuntzaren arabera	21
a) Euskarri bakarreko testuak	
b) Gaztelaniazko jarduketa administratiboak	
c) Euskarazko jarduketa administratiboak	
4.2. Osagai generikoaren errotulazioa	22
4.3. Maiuskulak eta minuskulak	23
a) Hasierako kokapena	
b) Erdiko kokapena	
c) Artikuluak, preposizioak, izenordainak eta juntagailuak	
4.4. Zehar-marra (/) eta toponimo elebidunak	24
a) Hizkuntza eremuaren arabera	
b) Errotulaziorako espazio mugatua	
4.5. Marraren (-) erabilera	25
a) Elementu geografikoak batzeko	
b) Norabidea eta tokikotasunaren erreferentzia	
4.6. Parentesiaren [()] erabilera	25
a) Informazio osagarria	
b) Izendapen normalizatuak	
c) Lekuaren identifikazioa laguntzeko	
d) Ez-ohiko izena	
e) Egoera bereziak	
f) Errotulaziorako espazio mugatua	
4.7. Azentu-marka	27
05 Toponimiaren erabiltzaileak	28
I. eranskina: Entitate geografikoen kategorizazioa	32
II. eranskina: Nafarroako biztanleguneen izendapena	39

Aurkezpena

Lan honen ardatza Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak burututako eta Nafarroako Euskararen Kontseiluak onartutako lanaren hedapena da. Lan honen bidez, Nafarroako toponimia erabiltzeko oinarritzko jarraibide teknikoak eman nahi dira eta toki entitateen eta biztanle-entitateen forma ofizial eta normalizatuak jasotzen dituen lizentzia eskaintzen da.

Toponimia bere osotasunean Nafarroako Gobernuaren hainbat foru dekretu eta ebazpenen bidez ofizialduta dago udalerri eta beste toki entitateetan 1991-1994 urteetan burutu ziren ikerketa lanak bilduz, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bilduman argitaratuak, eta, halaber, Toki Entitateen Erregistro Ofizialean eta (Nastat) Nafarroako Estatistika Erakundearen *Nafarroako Lizentzia* jasotako toki entitateak eta biztanle-entitateak.

Horrela, Nafarroako Foru Komunitatean toponimia-ondare materiagabe aberats handia dugu. Gainera, izen geografiko horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren unitate administratiboetan erabil-

tzen dira (kartografia, larrialdi zerbitzuak, posta-helbideak, katastroa, eta beste administrazio-jarduketak).


Beste aldetik, Nafarroa hizkuntza-komunitate elebiduna izatearen ezaugarriak, non gaztelania ofiziala baita eta euskara Euskararen Legeak zehazten duen eran, toponimiaren erabilerari ere berezitasuna gehitzen dio.

Horregatik guztiagatik, hizkuntza aniztasuna batetik eta Foru Komunitatearen berezko orografiak eragindako izen aberastasuna bestetik, izen geografikoen erabilera zuzenak makina bat zailtasun sortzen ditu, eta lan hau horietako askori erantzutera dator.

Horrela bada, plazer handia da Jarraibide hauen argitalpenaren bidez, Nafarroako Toponimia Ofizialaren erabilera zuzena egin dadin lagundu ahal izatea.

Ana Ollo Hualde

Herritarrekiko eta Erakundeekiko
Harremanetako Kontseilaria
Nafarroako Gobernua



01 Sierrera

01

Sarrera

Dokumentu honen helburua da Nafarroako Foru Komunitateko toponimia ofiziala kartografian, seinaleetan eta beste argitalpen batzuetan erabiltzeko oinarritzko jarraibide teknikoak eskaintzea, nazioartean eta estatuan ezarritako irizpideekin bat eginez bateratasuna emateko.

Toponimia txikia edo elementu geografiko txikiagoen (aurkintzak, orografia, hidrografia eta beste elementu geografiko batzuk) izen ofizialak ofizialduta daude, 1991-1995 urteen artean, hurrenez hurren, hainbat foru-dekreturen bidez. Toponimia horren ikerketa lana Jose Maria Jimeno Jurio historialariaren zuzendaritzapean burutu zen eta *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bildumako 59 liburukitan argitaratu zen, Nafarroako udalerri guztien eta Nafarroako beste erakunde batzuen zerrendak emanez, dagokien mapetan kokakuta. Era berean, toponimia nagusia (toki entitateak eta biztanle-entitateak, eskualdeak...) ofiziala da Nafarroako Gobernuaren hainbat foru-dekreturen eta erabakiren bidez.

Beste aldetik, Euskaltzaindiak araututako biztanleguneak ere badaude, ofizialak izan gabe, Nafarroako Gobernuak normalizatuta dituenak eta euskal

hiztunek erabilia eta, halaber, argitalpen ofizialetan. Horrela, izen horiek *Nafarroako Toponimia. Hizkuntz Normalizazioarako Irizpideak eta Herrien Izendegia* lanaren argitalpenean jaso ziren, 2000. urtean.

Toponimiaren edo izen geografikoen bidez, kokapen geografikoari buruzko informazio azkarra lor daiteke eta, horrela, Nafarroako Gobernuak hainbat administrazio-unitatek erabiltzen dute (kartografia, larrialdietako zerbitzuak, posta-helbideak, katastroa eta beste jardura administratibo batzuk).

Bestalde, toponimia ondare material gabearen zatia ere bada. Hizkuntzaren ikuspegitik garrantzitsua da, batez ere, euskararen eta gaztelaniaren bilakaera aztertzeko elementu garrantzitsuak bilatzen direlako; halaber, gizartearen historiari, kulturari eta ohiturei buruzko informazioa ematen dute.

Horregatik guztiagatik, hizkuntza-aniztasunaren eta lurraldearen orografiari lotutako izenen aberastasuna dela eta, toponimia-ondare oso garrantzitsua dago, batez ere euskal jatorrizkoa Nafarroako iparraldeko eta erdialdeko eremuetan, eta erromantze jatorrizkoa hegoaldean gehienbat.

Gainera, Nafarroa komunitate elebiduna da, non gaztelania eta euskara berezko hizkuntzak baitira. Gaztelania hizkuntza ofiziala da eta euskara ere bada Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, zehazten duen eran, eta

horrek arautzen du bere erabilera normala eta ofiziala.

Gertaera horiek guztiek berariazko baldintzak sortzen dituzte Nafarroako Foru Komunitatean toponimia osota-



Kodesko mendilerroa. Nafarroako Natura eta Ingurumenaren fototeka. Egilea: A. Zaldúa


sunean jorratzeko orduan, eta, beraz, haren erabileran bateratasuna eta koherentzia ahalbidetuko duten oinarrizko ildoak ezartzeko beharra; betiere, Estatuko eta nazioarteko araudiekin bat eginez.

Hori dela eta, Oinarrizko Jarraibide Tekniko hauek aplikagarriak izanen dira Nafarroako administrazio publikoetan, eta, halaber, Nafarroako toponimia erabiltzen den gizarteko esparru guztietan sustatuko dira.



02

Toponimiako oinarrizko terminoak



02

Toponimiako oinarrizko terminoak

Toponimiaren arloan badira hainbat kontzeptu oinarrizkoak eta komenigarria da horien gainean argibideak izatea.

2.1. Toponimo edo izen geografikoa

Izen geografikoa edo leku izenduna adierazteko erabiltzen den izen berezia, paisaiaren elementua edo elementu administratiboa izaten ahal dena. Maiz, termino espezifiko batez eta termino generiko batez osaturik azaltzen da.

Adibideak:

- *Tafalla*
- *Sierra de Lokiz / Lokizko mendilerroa*
- *Río Arga / Arga ibaia*

2.2. Termino espezifikoa

Izendatutako toki geografikoa berariaz identifikatzen duen toponimoaren partea. Izen bakarra edo elebiduna izaten da, eta ez da itzulgarria.

Adibideak:

- *Pamplona / Iruña*
- *Río Ega / Ega ibaia*
- *Sierra de Leire / Leireko mendilerroa*



2.3. Termino generikoa

Izendatutako entitate geografikoaren berezko izaera era orokorrean adierazten duen toponimoaren partea.

Adibideak:

- *Embalse de Itoiz / Itoizko urtegia*
- *Sierra de Ujué / Uxueko mendilerroa*
- *Foz de Arbaiun / Arbaiungo arroila*

Termino generikoak zenbait eratakoak izaten ahal dira:

a) Hautazko generikoa: horiek itzulgarriak dira eta erakunde eskudunak eskainiko ditu. Salbuespenez, ordeztzen ahal dira piktogramen edo irudi kartografikoen bidez, edo baita kendu ere.

Adibideak:

- **Sierra de** Abodi / Abodi**ko mendilerroa**
- **Río** Queiles / Queiles **ibaia**

b) Toponimo erreferentzialen generikoak: elementu erreferentzialekin erlazionatu-tako generikoak, beharrezkoak direnak eta itzulgarriak.

Adibideak:

- **Foz de** Lumbier / Irunberri**ko arroila**
- **Laguna de** Pitillas / Pitilla**sko aintzira**

c) Generiko lexikalizatua: bere eraketan hain gardenak ez direnak, hots, termino espezifikoren jatorria izen arrunta denean edo generikoa eta izen arrunta, aditzondoa edo izenondo baten konposatua.

Adibideak:

- **Barranco** Grande (Irunberri)
- **Sierra** Chiquita (Aguilar Kodes)
- **La Oliva** (Zarrakaztelu)
- **La Peña** (Unzué / Untzue)
- Andrea Galdu Zan **Erreka** (Altsasu / Alsasua)
- **Euntzea** (Lizarraga Itzagaondoa)

Ezin dira ordeztu, kendu edo itzuli, baina haien tratamenduari dagokionez, zalan-tzak eragin ditzakete; hortaz, toponimiako erakunde eskudunak eskainitako formak erabiliko dira.



Irunberriko arroila. Nafarroako Natura eta Ingurumenaren fototeka. Egilea: A. Cutiller.

2.4. Termino deskribatzailea

Ez dira toponimoak bere horretan, elementu geografikoen izaera adierazten duten izendapenak baizik, batez ere, jarduera industrialarekin, merkataritzarekin eta zerbitzuekin lotura dutenak.

Euskarazko Adibideak:

- *Hilerria*
- *Konpostatzeko instalazioa*
- *Zerbitzugunea*

Gaztelaniazko adibideak:

- *Cementerio*
- *Planta de compostaje*
- *Área de servicio*


2.5. Toponimia nagusia eta toponimia txikia

Toponimoak sailkatzeko era, batez ere, haien gainean jarduteko eskuduntzarekin lotua.

a) Toponimia nagusia:

- Toki entitateen izenak, Toki Entitateen Erregistroan eta (Nastat) Nafarroako Estatistika Erakundearen *Nafarroako Izendegian* jasotzen direnak.
- Elementu geografiko handiak (eskualdeak, ibarrak, mendiak, ibaiak...).

b) Toponimia txikia: aurkintzei, orografiari, hidrografiari eta beste osagai geografikoei dagozkien elementu txikiak dira.



Nafarroako mapa topografikoa, 2017. Eskala: 1:200.000 (handitua).

2.6. Toponimo ofiziala eta haren erabilera

Agintari eskudunak ezarritako izendapen geografikoa prozedura administratibo bati jarraikiz eta ofizialki argitaratua.

a) **Nafarroako Toponimia eta Mapagintza** argitalpenean jasotako aurkintzen, orografiaren, hidrografiaren eta beste elementu geografikoen izendapenak, Nafarroako Gobernuak hainbat foru dekreturen bidez onartuak. Nafarroako toponimia ofizialari buruzko informazioaren eta datu-basearen kontsulta honako webgune hauetan egiten ahal da: <https://administracionelectronica.navarra.es/toponimia/#> eta <http://euskarabidea.es/toponimia>

b) **Nafarroako Toki Entitateen Erregistro Ofizialean** jasotako toki entitateak. Horien gaineko kontsulta webgune honetan egiten ahal da: http://www.navarra.es/home_es/Navarra/272+Municipios/

c) **(Nastat) Nafarroako Estatistika Erakundearen Nafarroako Izendegian** jasotako toki entitateak eta biztanle-entita-


teak. Horien gaineko kontsulta webgune honetan egiten ahal da: <https://administracionelectronica.navarra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E=2>

Errotulazioa, bide seinaleak eta argitalpen ofizialak bat etorriko dira toki-izenen izendapen ofizialekin. Seinaleen esparruan, bat etorriko da Estatuak bere egin-dako nazioarteko arauekin.



Orbaibarko mendiak.
Nafarroako Natura
eta Ingurumenaren
fototeka. Egile
ezezaguna





Nafarroako mapa topografikoa, 2017. Eskala: 1:200.000 (handitua).

2.7. Toponimo normalizatua eta haren erabilera

Hizkuntza-agintaritza eskudunak zehaztutako izendapena, autoritate horrek berak finkatutako arau edo irizpideei jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak, bere erakunde autonomoek eta menpeko entitateek araututako izendapen horiek erabiltzerik izanen dute beren euskarazko testuetan eta argitalpenetan.

Adibideak:

- **Tutera**
- **Zarrakaztelu**

Izendapen ofizialaren ondoan errotulatzeko denean, parentesi artean eta letra etzanez adieraziko da, izendapen ofizialari buruzko informazio bezala.

Adibideak:

- Tudela (**Tutera**)*
- Carcastillo (**Zarrakaztelu**)*

* (Salbuespenez, adibide honetan toponimo ofiziala letra erregularrez adierazten da, argitalpenean zehar ez bezala, toponimo normalizatuarekin erabiliko den letra etzanarekiko ñabardura egiteko).

Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko izen geografikoak forma ofizialarekin, edo bere kasuan, normalizatuarekin errotulako dira, euskaraz eta gaztelaniaz, hizkuntza eremuen araberrako ordenari segituz.

Halaber, beste hizkuntzetan egindako argitalpenetan (frantsesa, ingelesa...) biztanlegune ezagunenak aipatzean, hizkuntza horietan normalizaturik dauden izendapenak erabiltzerik izanen da (*Pampelune, Roncevaux...*).

2.8. Toponimo alonimoa

Toki geografikoak bi izen ofizial emanak baditu, hizkuntza berekoak izaten ahal direnak, bat lehentasunezkoa izanen da, eta bestea alonimoa, baina azken hau ere erabiltzen ahal da.

Adibideak:

- *Gurugú eta Gazteluzar* (*Oltza Zendea*)
- *Aldaun eta Larraiera* (*Zuhatsu Arakil*)
- *Axitarte eta Dos Hermanas* (*Etxeberri Arakil*)

A detailed topographic map of the Nafarroa Foru Komunitatean region. The map shows various towns and villages, including Lakuntza, Arruazu, Uharte Arakil, Beriaín, and Lezáun. It also depicts the Andia Mendia mountain range, the Leizakoa river, and the Lizarra river. The map includes contour lines, elevation markers, and a network of roads. The text '03 Toponimia Nafarroako Foru Komunitatean' is overlaid on the map.

03 Toponimia Nafarroako Foru Komunitatean

Toponimia Nafarroako Foru Komunitatean

3.1. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15koa, Euskarari buruzkoa

Foru Lege honen xedea da euskararen erabilera arrunta eta ofiziala arautzea gizarte bizikidetzaren esparruan.

8. artikulua

1. Foru Komunitateko toponimoek gaztelaniaz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

a) Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskarazkoa izanen da, non ez den beste izen bat gaztelaniaz; hala bada, biak erabiliko dira.

b) Eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskarazko izendapen desberdin, jatorrizko eta tradizionala baldin badute, biak erabiliko dira.

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren alde aurreko txostena kontuan izanik eta artikulua honen lehendabiziko atalean aurrez ikusitakoaren arabera, Foru Komunitateko toponimoak eta lurralde, herri eta herriarteko bideen izen ofizialak erabakiko ditu eta, orobat, horren berri eman beharko dio Parlamentuari. Herri barruko bideen izena jartzea udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera, legezkoak izanen dira ondorio guztietarako Nafarroa osoan, eta errotulazioa haiekin bat etorriko da. Nafarroako Gobernuak errotulazio publikoaren normalizazioa arautuko du, betiere Estatuak bere egin dituen nazioarteko arauak errespetatuz.

3.2. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzkoa

Nafarroako Foru Komunitateak bere Administrazio Lokala Foru Lege honetan xedatutakoaren arabera antolatu du, interes publikoak kudeatzeko banaketa, eraginkortasun eta koordinazio printzipioei jarraikiz, horrela harenganako hiritarren konfiantza lor dadin.

22. artikulua

Udalerrien izenak aldatzeko Udalek hartutako erabakia beharko da, aurretik, gutxienez hilabete bateko informazio publikoa egonda.

Udal erabakia Foru Komunitateko Administrazioari igorri beharko zaio, Nafarroako Gobernuak onespina eman diezaion, eta hau emandakotzat hartuko da hilabete baten barnean ebazpenik suertatzen ez bada.

23. artikulua

Udalen izen aldaketek ofizialtasun izaera lortuko dute, apirilaren 2ko, Eraentza Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 14. artikulua aipaturiko Erregistroan apuntatu eta Estatuako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialetan argitara eman ondoren bakarrik.

25. artikulua

1. Udalen izenak eta herriburutzak aldatzeari buruzko udal erabakiak osoko bilkuran hartu beharko dira, korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin.

2. Udalerrietako herriburuaren aldaketak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Estatuako Aldizkari Ofizialean argitara eman beharko dira.



Aragoi ibaia. Nafarroako Natura eta Ingurumenaren fototeka. Egilea: E. Rabina.

3. Udalerrietako izen eta herriburu aldaketaren gaineko ebazpenak Estatuko Administrazioari igorriko zaizkio, Entitate Lokalen Erregistroan inskribatuak izan daitezzen.

3.3. Toponimia txikia ofizialtzeko foru dekretuak

Nafarroako Gobernuak hainbat foru dekreturen bidez ofizialdu zuen Nafarroako Foru Komunitateko toponimia txikia. Lan hori 1992. eta 1996. urteen bitartean argitara emandako *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bildumako 59 liburukitan jasoa dago.

3.4. Nafarroako Gobernuaren foru dekretuak eta erabakiak biztanleguneetako izendapen elebidunak zehazteko

Nafarroako Gobernuaren hainbat foru dekretu eta erabakiren bidez, udalerrien, kontzejuen eta biztanle-entitateen izendapen elebidunak zehaztu dira.

3.5. 5/2018 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako biziguneen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko irizpideak ezartzen dituenak


Foru Dekretu honen xedea da Nafarroako Administrazio Publikoek Nafarroako izen elebidun ofizialak egoki erabiltzeko

irizpideak arautzea, halaber, haiek idazteko erabiliko diren zeinu grafikoak definitzea eta egokitzea.

3.6. Nazioartearen, Europaren eta Espainiako Estatuaren mailako ebazpen eta arauak

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan garatutako arautegiaz gain, toponimiaren arloan aintzat hartzekoak dira honako hauek:

- a) Nazioarteko esparrua. Nazio Batuen Erakundearen 2003ko Ondare Kultural Materiagabearen Zaintzarako Konbentzioaren xedapenei jarraikiz, Izen Geografikoen Normalizaziorako Nazio Batuen Bederatzigarren Konferentziak, ebazpen bidez, toponimoak Ondare Kultural Materiagabearen parte direla onartu zuen, eta haren zaintzarako, sustapenerako eta hedapenerako oinarriak ezarri zituen (New York, 2007ko 21etik 30era).
- b) Europar Batasuneko esparrua. Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak 2007/2/CE zuzentaraua onartu zuten (Brusela, 2007ko martxoaren 14a). Horren bidez, Europako Erkidegoan espazio informaziorako azpiegitura ezarri zen (INSPIRE).
- c) Espainiako Estatuko esparrua. INSPIRE Zuzentaraua araudi espainiarrera gehitu zen uztailaren 5eko 14/2010 Legearen bidez, Espainiako azpiegiturei eta geografia informaziorako zerbitzuei buruzkoa (LISIGE).



04 Toponimiaren tratamendua eta haren adierazpen grafikoa

Toponimiaren tratamendua eta haren adierazpen grafikoa

Lan honen xedea da kartografian, seina-leetan eta beste argitalpenetan toponimo ofizialen idazkera errazteko oinarritzko arauak zehaztea, nagusiki, nazioarte mailan toponimiaren erabilerarako ezarrita dauden irizpideei jarraikiz. Horregatik, ez dira arau ortografikoak zehaztu nahi, horiek dagokion hizkuntza erakundeak ezarrita baititu.


4.1. Toponimiaren tratamendua hizkuntzaren arabera

Kontuan harturik gaztelaniaren eta euskararen ofizialtasuna eta Nafarroa hizkuntza eremutan banaturik dagoela, aintzat hartuko dira Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean ezarritako hizkuntzarekiko arauak, eta hori garatzen duen araudia.

a) Euskarri bakarra erabiltzen den jarduketa administratiboetan (zigiluak, logotipoak, idazpuruak, bideetako erro-tulazioa eta antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk), bi izenak erabiliko dira hizkuntza eremuaren arabera ordena aldatuz. Biztanlegunea eremu euskaldunean badago, lehenik euskarazkoa idatziko da, eta ondoren gaztelaniazkoa, eta eremu mistoan edo ez-euskaldunean badago, lehenik gaztelaniazkoa idatziko da, eta ondoren euskarazkoa. Izenak zehar marra baten bidez bereiziko dira (izena / izena).

Adibideak:

- *Luzaide / Valcarlos*
(eremu euskalduna)
- *Puente la Reina / Gares*
(eremu mistoa)
- *Gallipienzo / Galipentzu*
(eremu ez-euskalduna)



Nafarroako mapa topografikoa, 2017. Eskala: 1:200.000 (handitua).

b) Gaztelaniaz idatzitako jarduketa administratiboetan, bi izen ofizialetatik gaztelaniazkoa erabiliko da; nolanahi ere, jarduketa horietan euskarazko izena ere aipa daiteke hura zabaltzeko xedez.

c) Euskaraz idatzitako jarduketa administratiboetan, bi izen ofizialetatik euskarazkoa erabiliko da; nolanahi ere, jarduketa horietan gaztelaniazko izena ere aipa daiteke.

Izendapen normalizatuak erabiltzerik izanen da euskarazko testuetan eta argitalpenetan. Izendapen ofizialaren ondoan errotulatzaren denean, parentesi artean eta letra etzanez adieraziko da, izendapen ofizialari buruzko informazio bezala.

4.2. Osagai generikoaren errotulazioa

Hobetsiko da osagai espezifikoa generikoaz lagunduta errotulatzeari.

Adibideak:

- Bidasoa **ibaia** / Río Bidasoa (eremu euskalduna)
- **Laguna de Pitillas** / Pitillasko **aintzira** (eremu mistoa eta ez-euskalduna)

Zenbait egoeratan generikoa irudikatu ahal izanen da piktograma baten bidez, hala ere, ez da gomendagarria era orokor batean egitea piktogramek ez dutelako generikoek adierazten duten hizkuntza-aren aberastasuna irudikatzen.

Toponimo ofizialak bere eraketan hain gardenak ez direnean, hots, generiko lexikalizatuaren eredukoak direnean, berariaz erakunde eskudunak eskainitako formak erabiliko dira.

Euskarazko adibideak:

- **Amabirjinaren Iturria** (Amaiur)
- **Malkorra** (Iturmendi)...

Gaztelaniazko adibideak:

- **Monte del Rey** (Urreál Alto)
- **La Peña** (Unzué / Untzue)
- **Fuente Chorrizo** (Etxauri)
- **La Sierra Alta** (Romanzado)
- **La Sierra** (San Martín de Unx)



4.3. Maiuskulak eta minuskulak

Maiuskulen eta minuskulen erabilera honako jarraibide hauen arabera egiten da:

a) Hasierako tokiak. Arau orokorra da testu bat hasten duten hitz guztiak maiuskulaz idaztea, bere kategoria gramatikala edozein dela ere (gaztelaniaz eta euskaraz).

Euskarazko adibideak:

- **Bustiolaran**
- **Arkango Bazterra**

Gaztelaniazko adibideak:

- **Hontanillas**
- **La Fuente**
- **Raso de San Miguel**

b) Erdiko kokapena. Kontuan hartuko dira honako egoera hauek:

- Toponimo espezifikotik eta generiko lexikalizatuaren, hasierako maiuskulaz idazten dira izenak, izenondoak, aditzondoak, aditzak eta zenbatzaileak, gaztelaniaz eta euskaraz.

Euskarazko adibideak:

- **Suzpaizko Malda**
- **Goiko Irigako Bizkarra**
- **Behien Itzalaldeko Larrea**

Gaztelaniazko adibideak:

- **Abaurrea Alta**
- **Las Majadas Redondas**
- **Llano de la Cañada**
- Toponimoak gaztelaniaz hasierako artikulua duenean, artikulua hori minuskulaz idatziko da gaztelaniazko testuaren garapenean, eta kendu egiten da euskarazko testuaren garapenean. Ez da horrela egiten toponimia nagusiarekin, horretan artikulua lexikalizatutzat ematen baita.

Euskarazko adibideak:

- ... aurrerago **Alberca** eremuko lursailak... (**La Alberca**)
- ... Mendaza eta **Los Arcos** artean... (**Los Arcos**)

Gaztelaniazko adibideak:

- ... más adelante las fincas de **la Alberca**... (**La Alberca**)
- ... entre Mendaza y **Los Arcos** está... (**Los Arcos**)

- Beste aldetik, kontuan hartu behar da euskaraz hautazko generikoa eskuinaldean kokatzen dela eta, orduan, minuskulaz idazten dela.

Adibideak:

- Arakil **i**baia
- Zamartzeko **m**onasterioa
- Belate **m**endatea

- c) Gaztelaniazko artikulua, preposizioak, izenordainak eta juntagailuak minuskulaz errotulatzeko dira.

Adibideak:

- Balsa **d**el Fraile
- Fuente **d**e la Rabosa
- Alto **d**e la Quiteria

4.4. Zehar-marra (/) eta toponimo elebidunak

Zehar-marra adierazten du izendapen elebiduna dela, zeinetan bi izendapenak ofizialak diren eta ingurune linguistikoaren arabera gaztelaniaz edo euskaraz erabiltzen ahal diren. Arau orokor bezala tarte bat utziko da zehar-marraren alde banatan.

Adibideak:

- Altsasu / Alsasua
- Abaurregaina / Abaurrea Alta
- Pamplona / Iruña
- Puente la Reina / Gares
- Salinas de Oro / Jaitz

Areta ibaia.
Nafarroako
Natura eta
Ingurumenaren
fototeka. Egilea:
C. Armendáriz

- a) Ordena, hizkuntza eremuaren arabera. Hautazko generikoa erabiliko den errotulazio elebidunean hizkuntza eremuaren arabera idatziko da: eremu euskaldunean, lehenengo tokian euskarazko forma jarriko da; eremu mistoan eta ez-euskaldunean, lehenengo tokian gaztelaniazko forma jarriko da. Betiere, forma hauek erakunde eskudunak eskainiko ditu.

Adibideak:

- Zubietako errota / Molino de Zubieta (eremu euskalduna)
- Sierra de Labia / Labiako mendilerroa (eremu mistoa eta ez-euskalduna)

- b) Errotulaziorako espazio mugatua. Testua lerro batean errotulatzeko luzetara bada, bitan idatziko da, eta bi eratarik egiterik izanen da: lehenengoa, hasierako izendapenaren ondoren tarte bat eta zehar-marra jarrita; bigarrena, marra horizontala jarrita bi izendapenen artean.

Eremu euskalduneko adibideak:

- Abaurregaina / Abaurrea Alta
- Abaurregaina Abaurrea Alta



Eremu mistoko eta ez-euskalduneko adibideak:

- *Valle de Egüés / Eguesibar*
- *Valle de Egüés / Eguesibar*

Zenbait euskarritan, diseinu arrazoiengatik, marra hori diseinuzko beste elementuren batekin ordeztu ahal izanen da, betiere izendapenen adierazpena kaltetu gabe.



4.5. Marraren (-) erabilera

Marra (-) batez ere honako kasu hauetan erabiltzen da:

- a) Elementu geografikoak batzeko. Toponimo konplexu bat eratzen duten elementu geografikoak batzeko, esaterako, bi toki entitate elkartuz administrazio unitate bat eratzen dutenean. Idazteko, ez da tarterik utziko marraren ezker-eskuinean.

Adibideak:

- *Beintza-Labaien*
- *Biurrun-Olcoz / Biurrun-Olkoz*
- *Orokieta-Erbiti*

Hala ere, osagaietako bat izendapen konposatua bada, tarte bat utziko da gidoiaren alde bakoitzean.

Adibidea:

- *Tiebas – Muruarte de Reta*

- b) Norabidea eta tokikotasunaren erreferentzia. Halaber, marra erabiltzen da norabidea adierazten duten zenbait elementu geografiko erlazionatzeko (batez ere azpiegiturak), edo tokikotasuna azaltzeko. Kasu hauetan, marraren alde bakoitzean tarte bat utziko da.

Adibideak:

- *NA-2132 Burgui – Vidángoz / NA-2132 Burgi – Bidankoze*
- *Facero 4 Gallipienzo – Cáteda / 4. elkarrekikoa Galipentzu – Kaseda*

4.6. Parentesiaren (()) erabilera

Parentesia zenbait egoeratan erabiltzen da:

- a) Informazio osagarria. Kartografiatutako elementu geografiko baten informazio osagarria emateko, informazio hori ordezkatzeko sinbolorik ez dagoenean. Minusculaz idazten da.

Adibideak:

- *Corral de la Paloma (hondakinak)*
- *Borda de Arregi (hondakinak)*

- b) Izendapen normalizatuak. Izendapen ofizialaren alboan biztanleguneen izendapen normalizatua errotulatzeko denetan parentesi artean eta letra etzanez adieraziko da, izendapen ofizialaren informazio gehigarri gisa.

Adibideak:

- *Baquedano (Bakedao)**
- *Belascoáin (Beraskoain)**

* (Puntu honetan toponimoak adierazteko erabiltako letra-tipoak 2.7. puntuan zehaztutako ereduari segitzen dio).



Beriain mendia. Nafarroako Natura eta Ingurumenaren fototeka. Egilea: A. Cutiller.

c) Lekuaren identifikazioa laguntzeko. Salbuespenez, udalerrriaren izena aipatzeko udalerriko hiriburua baino ezagunagoa eta ezberdina denean, batez ere Nafarroako iparraldean.

Adibideak:

- *Mugiro* (**Larraun**)
- *Etxaleku* (**Imotz**)
- *Eritzegoiti* / *Erice* (**Atetz** / **Atez**)

d) Ezohiko izena. Entitate administratibo baten izen ofizialaren parte denean, ez oso ohikoa.

Adibidea:

- *Noáin* (**Valle de Elorz**) / *Noain* (**Elortzibar**)

e) Egoera bereziak. Salbuespenez, erabiltzen ahal da parentesia, behin-behinekotasunez, baita honako egoera hauetan ere:

- Bi izendapen herrikoi txandakatzen direnean, edo izen desegokia baina oso hedapen handikoa dagoenean.

Adibideak:

- *Beriain mendia* (**San Donato**)
- *Dantzaleku* (**San Pedro**)

- Zein udalerritakoak diren aipatu nahi den biztanle-entitateetan.

Adibideak:

- *Zia* (**Iza** / **Itza**)
- *Zia* (**Bera**)
- *Egiarreta* (**Arakil**)

- Oso hedapen handiko toponimoetan, termino espezifiko izen arrunta denean, haren erreferentzia zehazteko.

Adibideak:

- *La Higa* (**Monreal** / **Elo**)
- *La Peña* (**Unzué** / **Untzue**)
- *La Trinidad* (**Arre**)

f) Errotulaziorako espazio mugatua. Zenbait kasutan, errotulaziorako tarte eskasiagatik, hautazko generikoa parentesi artean ematerik izanen da, hizkuntza eremuaren araberrako ordenan azalduz. Horrela, eremu euskaldunean, euskarazkoa azalduko da lehenengo eta eremu mistoan eta ez-euskaldunean, gaztelaniazkoa.

Adibideak:

- *Domiko* (**urtegia** / **embalse**) (eremu euskalduna)
- *Erreniega* (**sierra** / **mendilerroa**) (eremu mistoa eta ez-euskalduna)

4.7. Azentu-marka

Ofizialki horrela zehaztutako toponimoak dagokien azentu-markaz idatziko dira (*Noáin*, *Castejón*...). Hala ere, euskarazko testu-garapenean toponimoa azentu-markarik gabe idatziko da haren forma deklinatuetan (*Noaingo*, *Castejondik*...).

Beste aldetik, ez dira azentu-markarekin idatziko haien forma ofizialean zehaztuta ez dutenek (*Baztan*, *Esteribar*...).

Letra maiuskulak dagokien azentu-markaz idatziko dira, bai osotasunean maiuskulaz idatzitako izenetan, baita soilik hasierako maiuskula bada ere. Azentu-marka hau ez da aukerazkoa, derrigorrezkoa baizik, eta edozein testu motari eragiten dio.

Adibideak:

- **ANCÍN** / **ANTZIN**
- **ÚCAR**
- **Ázqueta**

05 Toponimiaren erabiltzaileak



05

Toponimiaren erabiltzaileak

Oso garrantzitsua da pertsona eta entitate erabiltzaileak ohartzea zeinen garrantzitsua den toponimia zuzentasunez erabiltzea. Izan ere, toponimia ofizialaren gainean jarduteko eskuduntzak legerian zehaztuta daude eta erabiltzaileei dagokie iturri egokiak baliatzea erabilera egokia ahalbidetzeko.

Toponimia ofiziala kontsultatzerik izanen da argitalpen honen 2.6. puntuan jasotako helbide elektronikoetan: Nafarroako Toponimia Ofizialaren Datu Basea, Nafarroako Toki Entitateen Erregistro Ofiziala (toki entitateak), eta (Nastat) Nafarroako

Estatistika Erakundearen *Nafarroako Izendegia* (toki entitateak eta biztanle-entitateak).

Halaber, eskuragarri izanen da baita SITNA – Nafarroako Lurraldeari Buruzko Informazio Sistemako baliabideen bidez ere. Izan ere, toponimia Nafarroako Foru Komunitateko Oinarrizko Informazio Geografikoa eratzen duten gaietako bat da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako informazio geografikoaren tratamendua arautzen duen azaroaren 11ko 255/2015 Foru Dekretuak jasotzen duen bezala.

Eranskinak





I. eranskina

ENTITATE GEOGRAFIKOEN KATEGORIZAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko toponimo edo izen geografikoak ondorengo kategoria geografikoen arabera antolatzen dira:

KODETZE GEOGRAFIKOA / CODIFICACIÓN GEOGRÁFICA		
Kod./ Cód.	Euskara / Euskera	Gaztelania / Castellano
0	Zehaztu gabe	Sin precisar
100	Banaketa administratibo ofizialak. Zehaztu gabe	Divisiones administrativas oficiales. Sin precisar
101	Estatua (-a)	Estado
102	Autonomia	Autonomía
103	Probintzia	Provincia
104	Udalerrria (-a)	Municipio
105	Kontzejua (-a)	Concejo
200	Banaketa administratibo bereziak. Zehaztu gabe	Divisiones administrativas especiales. Sin precisar
201	Eskualde tradizionala (-a)	Comarca tradicional
202	Merindadea (-a)	Merindad
203	Barruti judiziala (-a)	Partido judicial
204	Elkarrekikoa (-a)	Facero
205	Esparru mugarritzatua (-a)	Coto redondo
206	Zerbitzuen mankomunitateak (-ak)	Mancomunidades de servicios
10000	Hirigunea. Zehaztu gabe	Espacio urbano. Sin precisar
10100	Biztanleguneak. Zehaztu gabe	Núcleos de población. Sin precisar
10101	Estatuko hiriburua (-a)	Capital de estado
10102	Autonomiako hiriburua (-a)	Capital de autonomía
10103	Probintziako hiriburua (-a)	Capital de provincia
10104	Merindadeko hiriburua (-a)	Capital de merindad
10105	Udalerriko hiriburua (-a)	Capital de municipio
10106	Barruti judizialeko hiriburua (-a)	Cabeza de partido judicial
10107	Kontzejuko herriburua (-a)	Capital de concejo
10110	Biztanle-entitate bakarra (-a)	Entidad de población singular
10111	Biztanle-entitate kolektiboa (-a)	Entidad de población colectiva
10112	Beste biztanle-entitateak (-ak)	Otras entidades de población

KODETZE GEOGRAFIKOA / CODIFICACIÓN GEOGRÁFICA		
Kod./ Cód.	Euskara / Euskera	Gaztelania / Castellano
10200	Hirigunearen aldeak. Zehaztu gabe	Partes del núcleo urbano. Sin precisar
10201	Auzoa (-a)	Barrio
10202	Urbanizazioa (-a)	Urbanización
10202	Kolonia	Colonia
10203	Bide publikoa (-a), herri-bidea (-a)	Vía pública
10204	Plaza	Plaza
10205	Parkea (-a)	Parque
10205	Lorategia (-a)	Jardín
10206	Eraikin apartekoa (-a)	Edificio singular
10207	Eraikina (-a)	Edificación
20000	Industria. Zehaztu gabe	Industria. Sin precisar
20100	Industria tradizionala (-a). Zehaztu gabe	Industria tradicional. Sin precisar
20101	Erlategia (-a)	Abejera
20102	Harrobia (-a)	Cantera
20103	Burdinola	Ferrería
20104	Gatzaga	Salina
20105	Teileria	Tejería
20106	Igeltsutegia (-a)	Yesería
20107	Meatzeta (-a)	Mina
20108	Errota	Molino
20200	Energia ekoizteko zentroa (-a)	Centro productor de energía
20300	Nekazaritzako elikagaien industria	Industria agroalimentaria
20400	Eraikuntzaren industria	Industria de la construcción
20500	Elektrizitatearen industria	Industria de la electricidad
20600	Zuraren industria	Industria de la madera
20700	Metalaren industria	Industria del metal
20800	Paperaren industria	Industria del papel
20900	Birziklatzearen industria	Industria del reciclado
21000	Erauzketa industria	Industria extractiva
21100	Mekanikaren industria	Industria mecánica
21200	Ontzi industria	Industria naval
21300	Industria kimikoa (-a)	Industria química
21400	Ehungintza industria	Industria del textil
21500	Industria eraldatzailea (-a)	Industria transformadora
21600	Alde batera utzitako lokal industrial (-a)	Local industrial abandonado
21700	Industrialdea (-a)	Polígono industrial

KODETZE GEOGRAFIKO / CODIFICACIÓN GEOGRÁFICA		
Kod./ Cód.	Euskara / Euskera	Gaztelania / Castellano
30000	Komunikazio eta garraio zerbitzuak. Zehaztu gabe	Servicios comunicación y transporte. Sin precisar
30100	Garraioko instalazioa (-a)	Instalación de transporte
30200	Aireko garraioa (-a)	Transporte aéreo
30300	Trenbideko garraioa (-a)	Transporte ferroviario
30400	Komunikabideak (-ak). Zehaztu gabe	Vías de comunicación. Sin precisar
30410	Errepidea (-a)	Carretera
30411	Autobidea (-a)	Autopista
30412	Autobia	Autovía
30413	Interes orokorreko errepidea (-a)	Carretera de interés general
30414	Foru Komunitatearen intereseko errepidea (-a)	Carretera de interés de la Comunidad Foral
30415	Eskualdeko errepidea (-a)	Carretera comarcal
